

## ARAZO EGOERA

# NATURA 2000 SAREKO EREMUEN KUDEAKETA

**ARLOA:** Biologia, Geologia, Fisika, Kimika, Gizarte Zientziak, etab.

**MAILA:** Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Ikastetxearen inguruko Natura 2000 sareko eremu batean, giza jardueraren eta naturaren kontserbazioaren arteko oreka hausteak kalte egin dio ondare naturalari azken urteetan. Gainera, klima larrialdi egoerak arazoa areagotu dezakela aurreikusten da.

## Naturan hezten



Adibidez: Aralar, Natur Parke izateaz gain, Europako Natura 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatua dago. Gaur egun, Aralarko goi larreetan abere karga altuegia denez, giza ekintzek naturaren gain duten presioa handiegia da, eta horrek bertako larreak kaltetzea eragin dezake, bertako kontserbazio helburuen aurka. Klimaren bilakaerak ere larre horien osasuna arriskuan jar dezakela aurreikusten da.

## **ARAZOA**

Natura 2000 sareko eremu horretan, erabiltzaile eta eragile interesatu ezberdinak daude, eta, haien jarduerak naturaren kontserbazioarekin bateragarriak izan daitezen, udal taldeak parte hartzeko prozesu bat jarri du martxan giza ekintzaren eta naturaren kontserbazioaren arteko oreka helburutzat hartuta. Testuinguru horretan, eta klima larrialdiaren aurkako borroka aintzat hartuta, ikasleek beren azterketa burutu ondoren, arazoa konpontzeko proposamen bat egin beharko diote udalari.

## **XEDEA**

Giza jarduerak garatzen diren naturgune babestuen kudeaketaren konplexutasunaz jabetzea, eta, ikuspegi ezberdineko interesak ezagutuz, natur ondarearen kontserbazioaren eta giza erabilpenen arteko oreka bilatzeko beharra ezagutzea.

## HELBURUAK

- Natura 2000 sarearen historia nolakoa den eta zein erakundek sustatzen duten ezagutzea.
- Natura 2000 sareko legedia eta horren helburuak identifikatu eta ulertzea.
- Ikastetxetik gertu kokatzen den Natura 2000 sareko eremu bat eta haren ezaugarriak identifikatzea.
- Naturagune babestu horretan (edo inguruan) giza jarduerarik ba ote den aztertu eta interesdun kolektiboak identifikatzea: herritarrak, abeltzainak, ikerlari zientifikoak, industria enpresak, arrantzaleak, ehiztariak, eskalatzaileak, etab.
- Bertan garatzen diren giza jarduerak Natura 2000 sareko natur ondareari kalterik egiten ote dioten (eta nola) aztertzea.
- Klima larrialdiaren ondorioz aurreikusten diren agertokietan Natura 2000 sareko eremu horrek jasan ditzaken inpaktuak ezagutzea.
- Giza jardueren eta klima larrialdiaren ondoriozko inpaktuen arteko erlazioak aztertzea.
- Klima larrialdiaren testuinguruan, Natura 2000 sareko legedia oinarritzat hartuta, naturagune babestu horretarako kudeaketa proposamenak egitea.

## ATAZA

Alkateari (edo lurralde administrazioari) aurkezteko, Natura 2000 sareko eremu horren diagnostiko bat eta kudeaketa proposamen bat garatzea.

## JARRAIBIDEAK

- Naturan hezten proiektuak gomendaturiko **bideoak ikusi** gaian murgiltzeko. Eta, posible bada, Aralar - Mundua leku den lurra pelikula ikusi.
- **Orekaren haustura** zerk eragin duen **zehaztu**. Irakasleak tokian tokiko errealitatearen arabera moldatuko du. (Errepideen eraikuntza, deforestazioa,

## Naturan hezten

gehiagizko abere karga, substantzia kimikoen erabilera nekazaritzan, abentura parke baten sorrera...).

- Natura 2000 sareko eremu horren inguruko eragile eta erabiltzaile guztiak **identifikatu**:
  - Herritarrak.
  - Natura 2000 sareko eremu horretan jarduera ekonomikoak dituzten pertsonak edo enpresak (abeltzain, nekazari, tabernari...).
  - Natura 2000 sareko eremu horretan aisialdiko jarduerak egiten dituzten pertsonak (mendizale, motozale, txirindulari...).
  - Zientzialariak (arkeologoak, biologoak, geologoak...).
  - Natura 2000 sareko eremu horren ardura duen (eta lurralde mailako klima aldaketaren aurkako borroka estrategien bultzatzaile den) administrazioa.
  - Europakor Batzordea, Natura 2000 sarearen sortzailea (eta klima aldaketaren aurkako borroka estrategien bultzatzailea nazioarte mailan).
  - Klima larrialdiaren aurkako borrokako aditu taldea.
  - ...
- Arazo egoera aurkeztu ondoren, ikasleak 3-4ko taldetan banatuko dira. Lantalde bakoitzak eragile baten inguruko **lanketa egingo** du (paperean sartuko da), gero beste taldeen aurrean bere interesak defendatzeko. Lanketarako, honako puntu hauek azter daitezke:
  - Natura 2000 sareko eremuetan bete beharreko legedia aztertu eta haren helburuak barneratu. (Baliabideak: Natura 2000).
  - Eragileen interesak ezagutu eta interes horien onuradunak zein diren aztertu.
  - Eragileek garatzen dituzten ekintzak/politikak identifikatu eta haiek naturagune babestu horretan duten eragina aztertu.
  - Natura 2000 sareko natur ondarearen kontserbazioaren aurkako ekintzak identifikatu. (Gizakiak naturan (Aralarren) sortzen dituen eraginak aztertzeko baliabideak: Gizakiaren eragina).
  - Natura 2000 sareko eremu horren kontserbazio egoera mantentze edo hobetze aldera, giza jarduerak zer baldintza bete behar dituzten zehaztu eta errespetarazteko neurriak aztertu.
  - Klima larrialdi egoera arintzeko edo haren eraginetara egokitzeko helburuarekin, Natura 2000 eremu horretarako estrategiak proposatu.

## Naturan hezten

- Behin lanketa eginda, interes ezberdineko kolektiboen arteko **adostasuna bilatu**, kudeaketa egoki bat egiteko helburuarekin.
- Diagnostiko eta proposamen bateratu bat sortu, eta alkateari egiteko **aurkezpena prestatu**.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).
- **Aukeraturiko Natura 2000 sareko eremua bertatik bertara ezagutzeko irteera bat antolatu. Ezinbestekotzat jotzen dugu arazo egoera bakoitza landu ostean gaiarekin erlazioa duen irteera bat egitea.**